

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko otsailaren 4a / 614. zenbakia



ARATUSTEAK

Zapatutik martitzenera bitartean ekitaldiak

CARITAS: 250 ETORKIN KOOPERATIBAN LANEAN/6 • KULTURA: AMODIOZKO GUTUNEN LEHIAKETA/11

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 4
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05

ZAPATUA, 5
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63

DOMEKA, 6
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63

ASTELEHENA, 7
MOZOS, Iparragirre 2. 943 76 12 15

MARTITZENA, 8
CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74

EGUAZTENA, 9
ZABALA, Barrenkalea 25. 943 76 16 87

EGUENA, 10
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Anbulatorioa (txanda) 943 03 54 00

Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06

Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46

Ertzaintza 943 53 47 20

Osasun etxea 943 76 24 40

Asepeyo 943 76 16 43

Pakea 943 76 13 49

Angiozarko medikua 943 78 90 27

Antzuolako medikua 943 76 62 23

Odol emaleak 943 76 16 24

Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

GARRIAK

Taxiak 943 76 19 50

UDALA

Bergarako Udaletxea 943 77 91 00

Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46

Udal Artxiboa 943 77 91 32

Igerilekuak 943 76 20 51

Kultura etxea 943 77 91 58

Liburutegia 943 77 91 62

Kiroldegia 943 76 56 41

Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 92

Erregistroa 943 76 13 15

Jardun 943 76 36 61

Idolaz 943 76 65 08

Erretiratuen etxea, Bergara 943 76 21 40

Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71

Postetxea 943 76 26 85

Bedelkar 943 76 04 68

Akulu AEK 943 76 05 18

Udal Euskaltegia 943 76 44 53

Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

San Pedro Domekak: 09:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:00.	Labegaraieta Domekak: 11:00. San Lorenzo Zapatuak: 20:00. Angiozar Domekak: 11:00.
Santa Marina Zapatuak: 19:00. Domekak: 13:00.	Moja Zaharrak Lanegunak: 08:00. Mizpirualde Lanegunak: 11:45. Zapatuak: 17:30.
Sierbak Lanegunak: 19:30.	Antzuola Domekak: 10:00, 11:30.
Osintxu Domekak: 12:00.	Uzarraga Domekak: 10:00.
Elosu Domekak: 11:00.	Elgeta Lanegunak: 09:00. Zapatuak: 19:30.
Ubera Domekak: 10:30.	Domekak: 12:00.
San Juan Domekak: 11:00.	
Elorregi Domekak: 10:30.	

URTE-MEZAK

Santa Marina
Hileko bigarren domekan,
13:00etan.

San Pedro
Hileko hirugarren domekan, 09:30ean.

OHARRAK

1979AN JAIOTAKOAK
1979an jaiotakoen bazkaria martxoaren 19an, Txarran-txa jatetxean. Izenematea (30 euro) Kutxan irekitako kontuan, otsailaren 24ra arte. Bazkari egunean 11:00etan elkartuko dira, San Martin plazan.

MARIAREN LAGUNDIKO ZOZKETA
Mariaren Lagundiko DBHko 4. mailako ikasleek egindako zozketan, 2.576 zorbakia izan da saritua. Txartelaren jabeak Zumelaga jatetxean bi lagunendako afaria eskuratuko du.

UDAL EUSKALTEGIA

Bergarako Udal Euskaltegian jardunean dauden taldeetan integratzeko aukera dago. Argibideak: 943 76 44 53.

ODOL ATERATZEA

Hurrengo odol ateratzea otsailaren 16an egingo dute, Seminarioan, 18:30ean hasita.

JARDUNENAGENDA

TXAPLIGU TALDEA

Bihar, zapatua, mozorro jaialdia izango da Arrizuriagan, 16:00etan hasita. Domekan, berriz, sukaldaritza ikastaroa izango dute Txapligu taldekoek, eta torradak egingo dituzte.

TXISKRILABI TALDEA

12-14 urte bitartekoak 16:00etatik 18:00etara elkartuko dira Udal Euskaltegian, Zabalotegin, eta 14-16 urte bitartekoak, berriz, 18:00etatik 20:00etara. Eztabaidak, irteerak, eskulanak, solasaldiak eta beste hainbat jarduera izango dituzte.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorenzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERGARAN

Herriko kirolari onenak saritu zituzten

Kirolariek egindako lana aitortu eta saritzeko asmoz Kirol Sariak banatu zituzten 1995eko otsailaren 2an. Udal Kirol Zerbitzuak eta BERRIGARAK antolatutako lehiaketan, Amaia Samaniego (kirolaririk onena), BKEko eskubaloiz saila (talderik onena) eta Serafin Esnaola (sari berezia) saritu zituzten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru



Ogia labean egitearen ekintza. —Ekarri pare bat abar sorta lanabesurako.

ASTEKOPELIKULAK

'OBSESION'

ZUZENDARIA: PAUL MCGUIGAN. **AKTOREAK:** JOSH HARNETT, DIANE KRUGER, ROSE BYRNE.

HARIA. Matthew Chicagora itzuli da, neskalaguna desagertu zela bi urte pasatu eta gero. Taberna batean neskalagunaren antz handia duen emakume bat ikusiko du, eta haren atzetik joango da...

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 19:30ean (ik. eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●



HAUGIROA!

MINIMOA Eguena, 27	-1°C
MAXIMOA Martitzena, 1	8°C
ASTEKO EURIA (l/m²)	41,7 L
	Max. Min. Euria
Eguaztana, 26	2°C 0°C 2,2 l/m²
Eguena, 27	3°C -1°C - l/m²
Egubakoitza, 28	5°C -1°C 28,3 l/m²
Zapatua, 29	7°C 2°C 1,2 l/m²
Domeka, 30	7°C 2°C 2,3 l/m²
Astelehena, 31	8°C 3°C 2,1 l/m²
Martitzena, 1	8°C 6°C 6,6 l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

'EL MAQUINISTA'

ZUZENDARIA: BRAD ANDERSON. **AKTOREAK:** CHRISTIAN BALE, JENNIFER JASON LEIGH, AITANA SANCHEZ-GUION.

HARIA. Trevor Reznikek (Christian Bale) fabrika batean lan egiten du. Urtebete da ezin duela lorik egin. Egun batean laneko istripua gertatuko da, eta amesgaizto batean murgilduko da Reznik...

TOKIA ETA ORDUA. Eguenean, otsailaren 10ean, 20:00etan. Zineklubeke emanaldia.

PUNTUAZIOA: ●●●●●



Musika eta liburuak



Ibargarai 12 - 20570 BERGARA Tel.: 943 76 40 50 Faxa: 943 76 23 52
bergara@megadenda.com http://www.megadenda.com

ATREBENTZIAEZPADA/ Mozorroa gertatu duzu Aratusteetarako?



DANEL SECO
9 urte

Bai, prest daukat. Aurten-gorako zombi mozorroa aukeratu dut. Aratusteak gustuko ditut, eta martitzenean mozorrotuko naiz. Lagunak irtengo gara denak berdin jantzita.



AINHOA MARDARAS
9 urte

Bai, hiru mozorro prestatu ditut, egun bakoitzerako bat: Pipirena, ume txikiarena eta ume gaiztoarena. Zapatuan, domekan eta martitzenean mozorrotuko naiz lagunekin.




AINHOA SAINZ
9 urte

Bai, hiru egunean mozorrotuko naiz, eta prest ditut arropak. Ume txikiz, indioz eta ume gaiztoz mozorrotuko naiz lagunekin batera, eta plazara irtengo gara dantzara.



ANDONI BEITIA
11 urte

Bai, gertatu dut aurtengo mozorroa. Deabru baten maskara daukat eta tunika beltz bat jantziko dut. Mozorro berarekin irtengo naiz kalera bai zapatuan eta baita martitzenean ere.



AINHOA LINAZISORO
11 urte

Oraindik pentsatu gabe daukat. Lagunok ez dugu erabaki zein mozorro jantziko dugun aurtun. Baina seguru aski denok berdin jantzita irtengo gara zapatuan kalera.



ASIER BEITIA
11 urte

Oraindik ez dut erabaki mozorrotuko naizen edo ez; beraz, azken momentuan prestatuko dut mozorroa. Mozorrotzekotan maskara bat eta tunika bat jantziko ditut, mozorro erraz bat.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK MATXIATEGIKO ZIBURUAK Irakurle batek deitu digu esanez, bi hilabete baino gehiago dela Matxiategiko ziburuak hesi batekin inguratu zituztela. "Udaletik laster konponduko zituztela esan arren, ziburuak bere horretan daude. Ume asko joaten zen bertara jolastera, eta eskertuko genuke lehenbailehen konpontzea. Izan ere, herrian ez dago ziburu askorik.", esan digu. /I.A.

ETABARRUAN...

ASTEKO /4

Osintxuko zubi zaharra

Osintxuko zubi zaharra konpontzeko proiektua abian jarri du udalbatzak.

KIROLA /8

Asier Garitano Alacanten

2.B mailan entrenatzaile lanetan diharduen Asier Garitano elkarrizketatu digu.

KULTURA /11

Amodiozko gutunak

Josu Arantzabal, herriko onena Amodiozko Gutunen Lehiaketan. Lehen saria, Alaitz Sarasolak.

ASTEKODATUA

250


ETORKIN LANEAN GARITASEN KOOPERATIBAN

Bergarako Artzipestaldeko Caritasek sortutako kooperatiba elkartean 250 etorkin inguruk dihardute lanean. Langileen gehiengoaren egoera erregularrizatzeko bilera dute zapatuan.

BESTEKEESANA

“Hemen gure umore modua dugu, baina Euskadi bat baino gehiago dago. Kostaldeko umorea eta barnealdekoa ez dira berdinak. Herri girokoa eta baserrikoa ere ez. Zerbaitetan, jendeak ez du irribarre egiten, errespetuagatik. Uste du antzokira joan eta ez duela barre egiterik. Batzuek ez diote uzten beren buruari barne egoera adierazten. Oraindik bada “Euskadi sakona” izendatzen dudana zerbait: eragin txikia jaso duten toki bazter eta gordeak, emozioei eusteko joera handia duen jendea bizi da hor. Hori ez da ona, sentitzen dena adieraztea da ona. Garai batean izateko postura gordeak, lagundu egingo zien bizitzan, baserri giroan batik bat, baina gaur egun bestela da egoera. Nor izateko aukera dugu, horrek, sentitzen dena adieraztea esan nahi du” VIRGINIA IMAZ / Pailazoa 'Argia'/05-01-30

BERAIEKDIÑOÈ/ Iñigo Garitano



Auschwitz

60 urte bete dira sobietarrek Auschwitz askatu zutela. Izugarria izan zen. 1.100.000 pertsonatik gora akabatu omen zituzten, gehienak judutarrak, 200.000 haur tartean. Munstrokeria izugarria. Telebistan ikusi nuen atzo horri buruzko erreportajea, eta saioko aurkezleak esandakoarekin gelditzen naiz: Auschwitz gertatutakoa lazgarria izan zen, giza espeziearen alde gutxi esaten duena. Lasai egoteko pentsa genezake hura bururatu eta planifikatu zutenak anker zoro batzuk zirela. Eta nazismoaren buruzagi batzuk izango zirela ez daukat zalantzarik. Baina holokaustoan parte hartu zuten gehienak ez ziren zoroak, ez ziren ezgizatiarrak. Giza sarraski hura aurrera eramateko milaka soldaduren partehartzea nahitaezkoa izan zen, eta alemaniar herriaren zati handi baten oniritzia edo, kasurik onenean, isiltasuna, geldotasuna. Eta ikaratzaren gaituena hori

da, laguntzaile horiek gutariko edonoren antzerakoak zirela pentsatzea, pertsona arruntak, seme-alabak zituztenak... ez zoro edo genozidak. Orduan, zergatik jokatu zuten horrela? Zergatik bete zituzten giza-eskubideen kontrako aginduak? Ez zutelako zalantzarik izan. Aginduak jaso eta bete egin zituzten, inolako zalantza izpirik gabe.

“Auschwitz gertatutakoa lazgarria izan zen, giza espeziearen alde gutxi esaten duena”

Ez noa gertakizunak maila berean kokatzera baina atzoko biktimak gaur urkatzaile bilakatu direla dirudi. Triskantza hura kalifikatzeko adjektiboak falta zaizkit, baina ezin dugu hartaz hitz egin eta palestinar herriaren egoeraz, adibidez, ahaztu. Zergatik gertatzen ari da hori? Ez al da izango orain ere agindu zutenak betetzeko daudenak zalantzak erakusteko kapazitatea galdu dutela?

Sinetsi nahi dut gizakia ez dela orohar bihotz gabekoa. Hori bai, gaitasun kritikoaren faltak munstrokeria beldurgarriak sor ditzake.

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Maria Agirre
Irati Agirreazaldegi
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereibar

LEGE-GORDAILUA
55-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Kommunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriritzakoa
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

HIRIGINTZA/Egin beharreko lanak zehazteko LKS Ingeniaritzak idatziko du proiektu teknikoa hurrengo bi hilabeteotan, 5.800 euroren truke

Osintxuko zubi zaharraren berritze lanak abian jartzea adostu zuen udalbatzak

EDU MENDIBIL


Udalbatzak joan den astelehenean erabakitakoaren arabera, LKS Ingeniaritzak egingo du Osintxuko zubi zaharra eraberritzeko proiektu teknikoa. Udalbatzak aho batez erabaki zuen proiektua LKS Ingeniaritzari adjudikatzea, 5.800 euroren truke.

Jakingo duzueenez, Osintxun egiten diharduten zubi berria zabalduko dute laster. Soraluze enpresaren aginduz, Altuna y Uria enpresak uztailearen erdialdean hasi zituen zubia eraikitze lanak, Gerondo parean. Lanak amaitzean daude, 1.200.000 euro inguruko aurrekontuarekin.

Orain, Osintxuko zubi zaharra konpontzeko konpromisoa hartu du Udalak. Zubia XVI. mendekoa da eta nahiko egoera txarrean dago. Tona askotako kamioiak igaro dira bertatik azken urteotan eta hori izan da, hain zuzen, zubi berria egiteko arrazoietakoa bat.

Esan bezala, LKS Ingeniaritzak idatziko du proiektu teknikoa hurrengo bi hilabeteotan, egin beharreko lanak zehazteko.

Bestalde, Udalak duen eskematokiak indarrean dauden segurtasun neurriak betetzeko 7.819



Osintxuko zubi zaharra eraberritzeko proiektu teknikoa idatzeko bi hilabeteoko epea izango du LKS Ingeniaritzak enpresak.

euroko aurrekontua onartu zuen udalbatzak astelehenean eta, era berean, 2003ko Kontu Orokorra aztertu behar duen Kontu Batzorde Berezia osatzeko Victoriano

Gallastegi (EAJ), Francisco Javier Garai (PSE-EE), Iñigo Iñurrategi (Aralar), Angel Santano (PP) eta Andres Diez (Ezker Batua) izendatu zituzten.

HAINBAT GAI GALDEREN TXANDAN

Asteleheneko ohiko bilkuran, errege eta galderen txandan, alkatearen eta Bergara Aurrerako kideen artean eztabaida izan zen.

Bergara Aurreraren izenean Jesus Mari Garitanok tranbiaren gaineko informazioa argi zabalduko eskatu zion Udalari. Victoriano Gallastegik esan zuen harremanetan dago Aretxabaleta eta Arrasateko alkateekin, alegazioen epea zabaldu eta panel bitartez herritarrei informazioa hobea eskaini ahal izateko.

Bestalde, BAKo Mila Elortza Abiadura Handiko Trenaren proiektua dela eta, baimenik eskatu gabe, Edutegi baserrian eta Angiozarko kanposantu ondoren terrenoetan laginak egin izan direla salatu zuen. Alkate horren berririk ez zuela erantzun zion, eta behin betiko proiektuaren zain zeudela beharrezko alegazioak egin ahal izateko. Al larko Iñigo Iñurrategi trenaren inguruko informazioa garbitzea eskatu zuen, Elortzarekin bere eginez.

Maite Guridik, berriz, eusko presoen eta BAKo egoeraren gaineko mozioak aurkeztu dituztena gogoratu zuen. Gai politikoak bestelako foroetan eztabaidatzea koak zirela erantzun zion alkateari. Iñurrategik bere adostasuna azaldu zuen BAKen eskakizunekin eta dei egin zuten alderdi elkarlanean aritzeko eta bere distentsiorako deia zabaldu zuten gobernari eta ETARI.



Ettxeberria erlojutegiko zozketa

Ettxeberria erlojutegiak Gabonetan egindako zozketan Fernando Mujika izan da irabazlea. 255 izan da zerbaki saritua eta Fernando Mujikak 1.500 euroko erosketa-bonua irabazi du. Mujikak astelehenean jaso zuen saria, Ettxeberria erlojutegiko Jon Ander Egañaren eskutik.

Erramu Zapaturako Txorimalo Lehiaketa deitu du Jardun elkarteak

E.M.

Jardun elkarteak Txorimalo Lehiaketa deitu du Erramu Zapaturako, martxoaren 19rako. Lehiaketaren XI. ekitaldia izan da aurtengoa eta, aurrekoetan bezala, adinaren arabera hiru talde bereiztuko dituzte.

Gaztetxoaren artean (12 urtera artekoak), hiru talde onenek egun bateko bidaia eskuratuko dute; bigarren taldean (12-60 urte) zein 60 urtetik gorakoaren artean, irabazleak 90 euro jasoko ditu eta bigarrenak, berriz, 60 euro.

IZENEMATEA, MARTXOAREN 11RA ARTE

Txorimaloekin batera esaldi bat aurkeztu beharko dute partaideek. Esaldi onenarentzat ere 60 euroko saria egongo da. Izen emateko epea martxoaren 11ra arte izango da zabalik.

Lehiaketa Erramu Zapatuan izango da eta txorimaloak ferian egongo dira ikusgai, 11:00etatik aurrera. Eguerdia parterako jakitera emango ditu epaimahaiak



Txorimaloak Erramu Zapatuan, martxoaren 19an, egongo dira ikusgai.

irabazleak zeintzuk izan diren. Jarduneko arduradunek azpimarratu dutenez, txorimaloak egiteko edozein material erabili daiteke. Hala ere, derrigorrez-

koa izango da txorimalo bakoitza oinarri edo ardatz bat izatea. Edozein argibidetarako deialdunera edota 943 76 08 19 zehaztu kira jo dezakezue.

JAIK/ Pirritx eta Porrotx pailazoen emanaldia zapatu arratsaldean Udal Pilotalekuan

Aratusteak alaitzeko mozorro lehiaketa bihar

E.M.

Aratuste jaiak izango ditugu Bergaran martitzena bitartean. Adin guztietako herritarrak mozorro jaiak murgiltzeko helburuarekin hainbat ekitaldi antolatu ditu Udalak.

Pirritx eta Porrotx pailazoen *Patata, patata!* ikuskizuna izango da bihar, zapatua, Udal Pilotalekuan, 16:00etan. Sarrerak 4 eurotan salgai daude. Haurren mozorro desfilea 18:00etan izango da, Fraiskozurin hasita eta Kilimixka hanka-palu taldeak alaituta. Gauean, 22:30ean, The Bond Scott Band eta Lobo Electrico taldeekin kontzertua izango da San Martin plazan eta atsedenean, gauerdiko aldera, mozorro jaia egingo da. Hainbat sari egongo dira mozorro onenendako.

Aratuste-domekan *Hamaika koloretan dantza* antzerki musikalak izango da Udal Pilotalekuan, 18:00etan. Sarrerak 3 eurotan salduko dituzte.

Eta Aratuste-martitzenean, Musika Eskolako Txarangak alaitutako kalejira izango da 16:30ean; 18:30ean erraldoi, kili-kili eta buruhandiak aterako dira kalera eta 19:30etik aurrera disko-top festa egongo da San Martin plazan, Sointek taldearen eskutik.



Mozorro onenendako sariak izango dira bihar gauerdiko lehiaketan.

ARTIBOIA

Asiako itsasikarak kaltetutakoei bideratuko diete kontzertuko dirua

KONTZERTUA GAUR UDAL PILOTALEKUAN

Udal Musika Bandak eta Orkestra Sinfonikoak emanaldia egingo dute gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 22:30ean. Sarrerak 5 eurotan salgai jarriko dituzte eta batutako dirua Asiako itsasikarak kaltetutakoei bideratuko diete.



Helduen Eskolako ikasle taldea ETB-2ko 'Pasalo' saioan

Bergarako Helduen Eskolako ikasle talde bat ETB-2ko *Pasalo* saioan izan zen aurreko egunean, urtarrilaren 27an. Hogeita hiru lagun joan ziren Iurretako estudioetara, eta ederki asko ibili ziren. Inaki Lopezek eta Adela Gonzalezek aurkezten duten saioan. Ikasleekin batera Marian Padilla eta Miren Gurutze Arana izan ziren Iurretan. Saioaren amaieran, Helduen Eskolakoek argazkia atera zuten saioa aurkezleekin.

Bergara aldeko hiztegia aurkeztuko dute egubakoitzean

E.M.

Juan Martin Elexpururen *Bergara aldeko hiztegia. Leintz-Aramai, Oñati eta Eibar inguruko berbekin osotuta* izenburuko liburua aurkeztuko dute hurrengo egubakoitzean, otsailaren 11n, Bergarako udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:00etan.

Elexpuruk Deba ibarreko berbak jaso ditu azken urteotan, eta bakoitzaren esanahia eta adibideak azaltzen ditu, marrazki eta argazkiekin lagunduta kasu askotan. Jaione Isazelaiak batu ditu irudiak. Eta marrazkiak, berriz, Josu Okina, Gorka Orte-

ga, Ibon Serrano eta Julen Zabaletak egin dituzte.

Hiztegiak gain, idazteko irizpideak, aditz-eta deklinabide-etaulak jasotzen ditu liburua. 770 orrialde dauzka Elexpururen lanak, eta egileak EHUko Euskal Filologia Fakultatean aurkeztutako doktoretza tesian oinarrituta dago.

30 EUROTAN SALGAI

Besteak beste, Ibon Sarasola euskaltzainaren etorriko da egubakoitzean aurkeztutako liburua. Sarasolak idatzi du, hain zuzen, liburuaren hitzaurrea. Liburua 30 eurotan jarriko dute salgai.



GOIENKARIA

Juan Martin Elexpuruk idatzitako liburuak 770 orrialde dauzka.

LABUR

Realeko partiduetara joateko autobus txartelak Dixula tabernan eskura daitezke

Deportivo tabernako berritze lanek irauten duten bitartean, Dixula tabernan jaso ahal izango dira Realeko partiduetarako sarreak eta autobus txartelak.

Autobuserako txartelak jasotzeko azken eguna egubakoitza izango da. Bihar, zapatua, 18:30ean aterako da Real-Valentzia partidua ikustera joateko autobusa, Ibargaraiko geltokitik.

Windows eta Microsoft Word ikastaroa Udalaren eskutik, otsailaren 14an hasita

Udaleko Ongizate Zerbitzuko Enplegu Sailak antolatuta, 50 orduko informatika ikastaroa izango da otsailaren 14tik martxoaren 18ra bitartean. Windows eta Microsoft Word hasiera jorratuko dituzte, arratsaldean, 14:30etik 16:30era.

Ikasle kopurua talde bakoitzeko, gehienez, 12 lagunekoa izango da. Izenemateak 30 euro balio du eta izena emateko epea otsailaren 11ra arte dago zabalik. Argibideak Ongizate Zerbitzuko Enplegu Sailean, 943 77 91 65 telefono zenbakian.

Perurena aita-emeak domeka eguerdian Murinondon, San Blas Txiki Eguna ospatzeko

San Blas Txiki Eguna ospatuko dute domekan, otsailaren 6an, Murinondon auzoan. Goizean, 11:00etan, Meza Nagusia izango da San Blas ermitan eta ondoren, auzoko elkarteetan, salda eta txistorra hartzeko aukera izango da. Era berean, Aranzadi Ikastolako Moises Aspiazu dantza taldeak saioa eskainiko du eta Inaki eta Inazio Perurena aita-emeak harria jasotzen ariko dira. Haurrendako kukainak ere izango dira Murinondon.

GIZARTEA/ Estatuan esperientzia pilotua da Caritasena; bihar, zapatua, langileekin eta enplegu-emaileekin bilera izango dute

Caritasek sortutako kooperatiba elkartean 250 etorkin inguruk dihardute lanean

EDU MENDIBIL

Bergarako Artzipestaldeko Caritasek sortutako kooperatiba elkartean 250 etorkin inguruk dihardute lanean. Kooperatiba duela bi urte jarri zuten abian; esperientzia pilotua da Bergaran eta inguruan abian jarritakoa.

Santa Marinako parroko Xabier Azkoitiak esan digunez, esperientzia guztiz positiboa izan da. Esan bezala, gaur egun 250 langilek osatzen dute kooperatiba eta gehienek etxetik etxeko zerbitzuan dihardute lanean. Besteak beste, Bulgaria, Ukraina, Mexiko, Bolivia, Argentina eta Kolonbiatik etorritako langileak dira.

ETORKINEN EGOERA ERREGULARIZATU

Madrilgo gobernu sozialistak agindu duenez, otsailaren 7tik maiatzaren 7ra bitartean etorkinen ezohiko erregularizazioa aurrera eramango du: hori dela eta, bihar, zapatua, Caritasko Laguntza Etxeko Abdoullaye Gueye abokatuarekin bilera izango dute kooperatibako langileek, 16:30ean, eta horren ondoren enplegu-emaileekin bilduko da, 17:30ean, Sierbetako lokalean. Bilera irekia izango da gaiarekin interesatutako guztiendako.

Egoera erregularizatu ahal izateko zera eskatuko zaie etorkinei: otsailaren 7a baino lehen gutxienez sei hilabetez Espainiako Estatuan erroldatuta egotea; eta etxetik etxeko zerbitzuan lan egiten dutenei, urtebetean sei hilabeteko lan kontratua izatea. Langileen %50ek egoera erregularizatu ahal izango dutela esan digu Xabier Azkoitiak.

Kooperatibako langileen %90ek Bergaran egiten dute lan, baina badira Arrasaten, Oñatin, Antzuolan, Urretxun eta Legazpin ere lanean ari direnak. Xabier Azkoitiak zera esan digu: "Lan hitzarmenak agintzen duena irabazten dute eta lan harremanak ere legezaren arabera dira, ordutegiak eta oporraldiak errespetatuz, beste edozein enpresatan



Santa Marinako parroko Xabier Azkoitia kooperatibako bi langileekin hizketan joan den astelehenean, Sierbetako lokalean.

gertatzen den moduan. Helburua kultura askotariko talde bat sortzea izan da, besteak beste, integrazioa eta solidaritatea bultzatuz. Aldi baterako lan enpresa bat sortu beharrean, kooperatiba bat eratu dugu: kooperatibako kideak langileak dira, lan egin nahi dute eta lan egiteko euren burua eskaintzen dute. Gaur egun, gizonezkoek zailagoa daukate lana topatzeko orduan".

ETORKINEI LAGUNTZEKO LANTALDEA

Bergaran gaur egun 600 bat etorkin dira, Caritasko datuen arabera. Zalantzarik gabe, nazioarteko immigrazioa fenomeno nabarmena bilakatzen ari da Euskal Herrian azken urteotan, baita gure bailaran ere. Azkoitiak esan digunez, 2.000 lagun izan daitezke bailaran kanpo etorkinak direnak. Etorkinen gehiengoa helduak dira, baina

Caritaseko arduradunen arabera, gero eta gazte jende gehiago etortzen ari da, eta 20 urtetik beherakoei gutxienezko ikasketak egitea eskatzen zaie. Lana eta ikasketak tartekatzeak erraztasunak ematen dizkie Caritasek. Kooperatibako kideei zuzendutako ikastaroak ere antolatzen dituzte.

Caritasek lantalde bat osatu du, etorkin horiei harrera egin eta baliabideak eskaintzeko. Maite Aristegi arduratzen da arlo juridikoaz; David Romero, Juncal Arruti eta Lali Tartas, lan arloaz; Ivan Iturricastillo, arlo ekonomikoaz; Ainhoa Basauri eta Jasone Albisuk aisialdi taldean dihardute; Garbiñe Garmendia medikuak osasun gaiak zuzentzen ditu; eta, azkenik, Pauli Muro dugu arropa zerbitzuko arduraduna. Xabier Azkoitia guztien koordinatzailea da.



Aida eta Gladys Chavez ahizpa boliviarrak kooperatibako langileak ditugu.

ZUHAIZTI
taberna

Eguneko menuak!

Asteleheneetik ostiralera
eguneko menuak Zuhaitzin.

Ordutegia: 12:30etik 15:00etara.

Espaloia 6 Bergara Tel.: 943 76 59 22

MINGAINARITIRAKA



Josu Arteaga

Tantana Lurrin Dendakoa

Irailaz geroztik, Irala kalean du Tantana lurrin denda Josu Arteagak. Gustura dago denda berrian, lehengoa baino argitsuagoa baita. Crema eta osagarriak saltzen ditu besteak beste, baina kremen inguruan galdetu diogu bereziki.

Gustura denda berrian?

Bai, askoz hobeto. Argi gehiago dugu, handiagoa da eta erosoagoa. Jendeari ere asko gustatu zaio. Bestea ilunagoa zen.

Zuk zeuk zerekin garbitzen duzu aurpegia goizetan?

Aurpegia garbitzeko xaboiarekin, eta urarekin. Ondoren, azala hidratatzeko crema ematen dut. Gauetan ere batzuetan crema ematen dut aurpegian.

Bergarako gizonezkoek zaintzen dute azala?

Nik uste dut baietz. Kremak eta erosten dituzte, edo bestela emaztearena erabiltzen dute.

Esan egia: ximurrak kentzeko kremek balio dute zerbaiterako?

Bai, baina ximurrak ez dituzte kentzen. Crema horiek balio dute ximurren agerpena atzeratzeko. Daudenak, berriz, ezin kendu.

Krema horiek noiz hasi behar da erabiltzen?

40 urtetik aurrera, baina hori azalaren araberakoa izaten da.

Emakumeak, makillajearekin edo barik?

Askok igartzen diren makillajeak ez zaizkit gustatzen. Naturalak ditut gogoko. Berdin da zer edo zenbat daraman aurpegian, baina naturala izan dadila.

Udan beltzaren egoten zara?

Lehenago, bai. Hondartzara joan eta bertan lo, eguzkia hartzen nuen. Gaur egun, berriz, umeak direla eta astirik ez dut.

Kirolik egiten duzu?

Ez, ez dut batere egiten. Hala ere, egin izan dudanean gustura ibili naiz.

Zenbat balio du dendan duzun kremarik garestienak?

190 euro. Azal helduendako da.

Domeketan zein ordutan jaikitzen zara?

Aste barruan bezala, goizeko zortziak inguruan.

Bergarako komertzioa osasuntsu ote dago?

Azkenaldiak kontsumoak behera egin du, baina ez Bergaran bakarrik. Orokorrean sumatu da hori. Dendari batzuei entzun diet esaten, azken hiru hilabeteak ez direla oso onak izan. Baina esan bezala, Bergaratik kanpo ere igarri da hori.

MARIA AGIRRE

KANPOTARRAKBERGARAN

LEANDRO ROSADO

27 URTE / ARGENTINARRA / IAZ, ABUZTUAN, ETORRI ZEN BERGARARA

“Argentinan dena da berriagoa, baina Bergarak nabari du herri zaharra dela”

MARIA AGIRRE

Denbora laburra darama Leandrok gure artean. Joan den abuztuan etorri zen Bergarara bizi izatera, lagun batek hala gomendatuta. “Argentinan, Ekonomia Zientziak ikasi nituen, eta atzerrian master bat eginez, ikasketekin jarraitzea erabaki nuen. Mondragon Unibertsitatearen Oñatiko campusean ari naiz masterra egiten, enpresen administrazioaren inguruan. Goizean Oñatira joaten naiz, eta arratsaldean lan egiten dut Bergaran, Sirimiri tabernan”.

Leandro pozik dago gure artean, lagunak ere baditu, eta herrira iritsi zenean zerk harritu zuen galdetuta, ez du zalantzarik: “Bergara herri zaharra da, etxe eta eraikinak ikusi baino ez dago, eta horrek erabat harritu ninduen. Argentinan dena da askoz berriagoa”.

Argentinan, Buenos Aires hiriburutik gertu bizi da Leandro, ordu erdira hain justu. Gurean gustura badago ere, jaioterriko hainbat gauza sumatzen ditu faltan: “Bereziki familiar-teko eta lagunekin akordatzeko naiz, baina hori normala da. Hala ere, hemen baditut lagunak, eta kalera ateratzen naiz tabernan”.

Horrek ere asko harritu ninduen. Argentinan, bi edo hiru tabernatara joateko ohitura dugu, baina hemen taberna askotara joan zaitezke arratsalde batean”.

BERGARAN GERATZEKO AUKERA

Bergara edo ibarrean geratzeko aukeraz ere galdetu diogu Leandrori, eta lan egoki bat topatuz gero geratzeko prest legokeela esan digu: “Nire ikasketekin lotura duen lanen bat aurkituz gero, hemen geratuko nintzateke. Argentinan une honetan egoera ekonomikoa ez da batere ona, eta aukera gutxi dago. Orain ari gara zulotik ateratzen, baina apurka-apurka izango da,

“Argentinan une honetan egoera ekonomikoa ez da batere ona, aukera gutxi dago”

denbora behar da horretarako. Krisi ekonomikoa larrian murgildu ginen duela pare bat urte, eta errekupeatzeko urte batzuk beharko dira”.


Argentinan egoera ekonomikoa ez da ona, eta ondorioz, desberdintasun sozialak ere areagotu egin dira, Leandrok kontatu digunez: “Hemen, dendari edo abokatu izan, ez dago desberdintasun sozial handirik, baina Argentinan izugarria da. Gainera, profesional izateak prestigio handia du, eta horrela desberdintasun soziala are eta handiago izaten da”.

EUSKAL HERRIAREN EGOERA

Leandrok esan digunez, egunero egunkaria irakurri eta albistegia ikusteko ohitura du. Era horretan, hemengo egoeraz badaki zer edo zer, baina iritzirik emateko gai ez dela dio:

“Tabernan nagoenean, noizean behin jendeari galderak egiten dizkiot hemengo egoera politikoaz, baina askotariko erantzunak jaso izan ditut. Nire ustez, gehiago sakondu beharko nuke iritzia eman aurretik. Besterik gabe ez da erraza iritzia ematea”.

Bien bitartean, gustura dago Bergaran, eta lanak eta ikasketek uzten diotenean, kirola egitera joaten da, korrika aritzen da. Internet du beste zaletasunetariko bat.



OGIZUN

koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

ELKARRIZKETA

ASIER GARITANO/ ALACANT FUTBOL TALDEKO BIGARREN ENTRENATZAILEA

"Gure taldeak oinarri sendoak dauzka, eta gauzak ondo badoaz hemen jarraituko dut"

EDU MENDIBIL

Asier Garitanok (35 urte) entrenatzaile lanetan dihardu 2.B mailako Alacant taldean. Zapatuan, Iruñean, huts eta huts berdinu zuten Osasunaren aurka. Sailkapeneko lehen postuan da Alacant.

Sendo ari zarete 2.A mailara bidean...

Bai, orain arte gauzak ondo atera zaizkigu: lau partidu besterik ez dugu galdu eta sailkapeneko bigarren postuan dagoen Peralta taldeari zortzi puntuko aldea ateratzen diogu eta bosgarrenari, berriz, 11 puntu. Lehenbiziko asmoa igoera play-offetarako sailkatzea da, eta gero, ikusi behar, zaila da eta 2.B mailatik ateratzea.

Gustura Alacanten, ala?

Duela bost urte etorri ginen eta gustura nago, bai. Jokalari aritu eta gero, aurreko denboraldian eskaini zidaten entrenatzaile izatea: Pepe Bordalas da entrenatzaile nagusia, eta haren laguntzaile nabil. Egia esan, talde finkoa ari gara lanean, eta horrek egonkortasuna ematen dio taldeari. Giro ona dago, eta, gauzak ondo doazen bitartean, bertan jarraitzeko asmoa daukat.

Talde txikia izatetik haziz joan da Alacant.

Duela ez asko bigarren erregionalean zegoen, eta egitura aldetik eta aurrekontu aldetik taldea haziz joan da. Azken bi denboraldietan igoera play-offetik kanpo geratu gara azken jardunaldian. Zuzendaritzaren proiektuak oinarri sendoak dauzka.

Lehia handia dago Alacanteko bi taldeen artean?

Betidanik Herculesek izan ditu jarraitzaile gehiago, besteak beste lehen mailan ibilitako taldea delako. Baina gauzak aldatuz doaz; hirugarren mailara igo ginenean 1.000 bazkide genituen eta aurtun, berriz, 4.500 inguru, Herculesen antzera. Garai baten 8.000 zituen Herculesek; beraz, parekatuz doa kontua. Aste bukaera honetan jokatu dugu euren aurka. Lehen itzulian 0-1 irabazi genien: orain, etxeko taldea gu izango gara, nahiz eta bi

taldeok Rico Perez futbol zelaian jokatzen dugun.

Bestalde, zelan ikusten dituzu Athleticen eta Realaren ibilbideak?

Athletic ondo ikusten dut: jende gaztearekin dabil lanean eta gauzak ondo ateratzen ari zaizkio. Valverde ezagutzen dut, eta pozten naiz berarengatik. Real, berriz, larri dabil, eta gogor egin beharko du lan zulotik ateratzeko. Kalitatea badute horretarako, eta ea zortea daukaten.


Eibarren jokatuakoa zara. Lortuko dute igotzea?

Eibarrek egiten duena txapela kentzeko modukoa da. Talde bikaina osatu dute, eta emaitzak hor daude. Domekan Cadizen irabazi bazuten, edonon irabazteko gauza dira. Aurtun bost aldiz ikusi dut Eibar eta benetan bikain dabilta. Beharbada jendeak ez du behar den moduan baloratzen jokalarien eta entrenatzaileen lana, eta merezi dute bigarren itzuleran etxeko partiduetan zale gehiagoren laguntza, ez baita jende askorik joaten Ipuruara.

Zapatuan hurbildu ziren etxekoak eta lagunak Taxoarerara?

Baten batzuk etortzekoak ziren, baina egiten zuen hotzarekin esan nien hobe zutela etxean geratu. Hotz handia egiten zuen Iruñean.

"Helburua igoera play-offak jokatzea da; gero, ikusiko da, zaila da eta 2.B mailatik ateratzea"



ANGEL GAR

Bergarako tenislariak, bigarren postuan Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketan

E.M.

Bergarako tenis jokalariek bigarren postuan sailkatu dira Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketan. Joan den urtarrilaren 22an Azkoitian jokatuakoa finalean, herriko ordezkariak 1-2 galdu zuten Azpeitiko jokalarien aurka. Jorge Aranesek lortu zuen Bergarako puntu bakarra; Juan Luis Etxanizek galdu egin zuen banakako partidua; eta binakakoan, azpeitiarrak Aranes-Etxaniz bikoteari nagusitu zitzaizkien. Eneko Ugaldere bergararrak ere hartu du parte txapelketan, baina ezin izan zuen finala jokatzetik izan lesioan zegoelako.

Bergarako hiru jokalariek txapelketa bikaina egin dute. Txapelketa Davis Kopako sistema jarraituta jokatu da, banaka bi partidu eta binakakoa jokatuta. Abenduan hasi zen Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketa, zortzi

talderen partaidetzarekin. Taldeak bi multzotan banatu zituzten eta Bergarak Zarautz, Oñati eta Azpeitiko taldeen aurka jokatu behar izan zuen. Lehenbiziko neurketan, bergarrek 0-3 galdu zuten azpeitiarren aurka; jarraian, 2-1 irabazi zioten Zarautzi; eta azken partiduan, Oñatiri 2-1 irabazi zioten. Bigarren postua eskuratu ondoren, finalerdietan, 2-1 irabazi zion Bergarak Azkoitiari.

Azkoitia eta Azpeitiko tenislariak antolatu dute txapelketa, Gipuzkoako Tenis Federazioaren laguntzarekin.

DEBAGOIENEN MASTERRA

Bestalde, Debagoieneko Masterrako finala jokatuko sailkatu da Juan Luis Etxaniz. Finalean, Jose Caballero arrasatearraren aurka jokatuko zen Etxaniz, herenegun, eguaztena, Oñatiko Zubikoa kiroldegian.



Juan Luis Etxaniz eta Jorge Aranes, alboetan zutik, Azpeitiko ordezkariekin batera.

MENDIA

Eskiatzera joateko irteera Pol-Pol taldearen eskutik

Pol-Pol Mendizale Taldearen eski sailak otsailaren 25 eta 27ra Formigalera joateko irteera antolatu du. Argibideak eta izenematea Pol-Pol taldearen bulegoan, astelehenean, egubakoitzera, 19:00etatik 20:30era.

PILOTA

Hernani-Bergara, 'Berria'-ren herri arteko txapelketan

Berria egunkariak antolatutako herri arteko pilota txapelketaren barruan, Bergarako pilotariak Hernaniko taldearen aurka jokatuko dute gaur, egubakoitzera, Hernanin, 22:00etatik. Kadete, gazte eta senior mailako partiduak izango dira, eta tanto gehien lortzen duen taldeak egingo du aurrera.

FUTBOLA

Bergarak Orioko taldearen bisita izango du zapatuan Agorrosinen, 16:30ean

Bergarak sailkapeneko atzealdean jarraitzen du, 18. tokian; udaberria bitartean, jaitsiera postuetatik irtetea da mahoneroen helburua

E.M.

Preferente mailako Bergara KEko futbol taldeak Orioko hartuko du bihar, zapatua, Agorrosinen, 16:30ean. Azken jardunaldian Lesakan 2-0 galdu ondoren, sailkapeneko 18. tokian dago Bergara.

Bergarak partidu ona egin zuen domekan Lesakan. Hala ere, esku hutsik bueltatu ziren mahoneroak Nafarroatik. Beti-Gazte, gainera, arerio zuzena da jaitsiera saihesteko borrokan eta aukera paregabea galdu zuen Bergarak nafarrak atzean lagatzeko. Lehen zatian aukera onak izan zituzten arren, Bergarak aurrelariak ez zuten ate aurrean asmatu. Beti Gazte azken minutuetan lortu zituen partiduko bi golak.

Liga hasieratik sailkapeneko azken postuetan da Igor Gordobil eta Andoni Azkargortak zuzendutako taldea. Hala ere,

etxeke partiduetan behinik behin, hobeto ari dira mahoneroak. Agorrosinen jokaturako azken partiduan 4-2 irabazi zion Bergarak Mondragoni eta zaleak pozik atera ziren Agorrosinen ikusitakoagatik. Orain dela hamabost egun erakutsitako jokoari eustea da entrenatzaileen asmoa. Horrela bada, puntuak etxean geratuko direla ziur dira.

Hala ere, hemendik udaberria bitartean ez dute ibilbide erraza izango jokalaririk mahoneroek. Momentuan, esan bezala, sailkapeneko 18. tokian daude, 22 punturekin.

Bihar, Bergarak bisitari izango duen Orioko taldea sailkapeneko 10. postuan dago. Azken jardunaldian Oiartzuni irabazi zioten, 5-2.

ATSEDENA ARATUSTEAK DIRELA ETA Aratusteak direla eta, ez da beste futbol partidurik izango aste bukaeran Bergaran.



Azkenaldian etxean erakutsitako joko onari eutsi nahi dio Bergarak bihar, Oriokoren aurkako partiduan.

ARGAZKILARIA

Gazte mailako nesken eskubaloi taldea sailkapeneko lehen postuaren bila zapatuan

E.M.

Gazte mailako nesken eskubaloi taldeak Zumaiako Pulpo taldearen aurka jokatu du bihar, zapatua, Labegarietako kiroldegian, 11:30ean. Sailkapeneko lehen postuaren bila dira bergararrak.

Gazte mailako neskek Leitzarari liderrari irabazi zioten aurreko zapatuan Bergaran, 13-12. Horren ondorioz, bihar Pulpori irabaztekoan, lider jartzeko aukera izango dute Ibai Otxoa eta Ander Alvarezen jokalariek. Jokaturako hamaika partiduetatik bi besterik ez dituzte galdu bergarrek.

Beraiekin batera Leitzarari eta Arrate-Amaña taldeak dira lehen postua eskuratzeko lehia bizian.

SENIOR MAILAKO TALDEA

Bestalde, senior mailako lehen taldeak Escolapios taldearen bisita izango du zapatuan kiroldegian, 17:00etan.

Joan den zapatuan, partidu ona jokatu arren, Basauriren kontra galdu zuen Lander Juaristik zuzendutako taldeak, 25-28. Nahiz eta ia partidu osoan zehar etxekeak atzetik joan, 24nako berdinketa lortu zuen Bergarak. Hala ere, azken minutuetan talde bizkaitarrak bere nagusitasuna azaldu zuen.



ARTXIBOA

Gazte mailako nesken taldeak Pulporen aurka jokatu du zapatu goizean.

LABEGARAIETA

PARTIDUAK

ZAPATUAN, KANPOAN

09:30: Agirrebeñia-Brescia PDS
10:30: Komando Piperrak-PDS . . . Agirreb.
11:30: Fac-Belengua Niu Tim
12:30: Niu Tim-Canalejas Belengua
16:30: A Ze Flaxa-Bayer Kalaveras
17:30: Ganbara-Kalaveras Bayer
18:30: Egurre-Pirulotarrak Ganbara

DOMEKAN, BARRUAN

10:00: Txipiron-Fac Canalej.
11:00: Kalaveras-Canalejas Errotag.
12:00: Fit Autom.-Errotagain Kalaveras
16:00: All Blacks-KMP Mongatx.
17:00: Irubide-Mongatxurak Arrano
18:00: Pagomendi-Arrano De Resa.
19:00: Cosa Nostra-De Resaka SDTNT
20:00: Ganbara-SDTNT Cosa No.

TORREKUA
ERRETEGIA

Gustu finendako leku fina



- Batik bat arraina
- Karta
- Eguneko menuak

Goizeko 7etatik zabalik

Ibargarai 37, BERGARA. Tel. 943 76 50 99

GIDA

05

Akats baten zuzenketa

- Intereseko telefonoak 5. orrian

Ospital eta anbulatoriak

Bergarako anbulatorioa 943 03 54 00

BOLU SUKALDEAK



2000
eguneko
garantia.
Aurrekontua
konpromiso
gabe.



Bolu 22 -behea . Bergara . Telefonoa eta faxa: 943 76 27 02

ELKAR ELEKTRAGINTZA

**ZURE
ZERBITZURA!!**

Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA

LITERATURA

Alaitz Sarasola ordiziarrak irabazi du aurtengo Amodiozko Gutunen Lehiaketa

Nahikari Gabilondo zarautzarrak jasoko du bigarren saria, eta herriko gutunik onena Josu Arantzabalek idatzi du. Guztira 72 gutun aurkeztu dituzte

M.A.

Amodiozko Gutunen XIII. Berrigara Lehiaketak baditu saridunak. Lehenengoa ordiziar batek jasoko du, Alaitz Sarasolak. Bigarrena, Nahikari Gabilondo zarautzarrak, eta Bergarako gutun onenaren saria, Josu Arantzabalek. SMS bidezko mezuen saria, Miren Rubio lesakarrak.


Iaz baino lan gutxiago aurkeztu dira aurtengo lehiaketara. Aurtun 72 izan dira, iaz baino 39 gutxiago. Gutunen kalitateari dagokionez, epaimahaiko kideek adierazi dute denetarik aurkeztu dutela, baina saritutako lanek benetan maila bikaina dutela. Fernando Morillo, Asier Serrano eta Ana Urkiza idazleak, eta Modesto Arrieta, iazko irabazleak osatu dute epaimahaia. Bestalde, SMS bidezko maitasun mezuen lehiaketara 42 mezu aurkeztu dituzte, eta Bergarako ikasle batzuk osatu dute epaimahaia. Estilo desberdinetako mezuak iruditu zaizkie.

BERGARAKO GUTUN ONENA

22 urteko Josu Arantzabalek jasoko du Bergarako gutun onenaren saria. Epaimahaiaren iritziz, gutun ausarta eta sinisgarria idatzi du. Sari banaketa ekitaldia, ohikoa den moduan, San Valentin egunean egingo dute.

Gure artian sortu zan konplizidadeari edo feelingari maitasuna deitzia igual gehixegi izango zan, baina nik behintzat intensidade handixakin bizi izan naban. Nere maitasunaren idealera gerturatzen zan gure artekua. Hala ta be behinbe ez naban euki zuregana juan eta esan biharrekuak aurrez aurre esateko baloria, baina horixe da lotsati xamarrek ganoi tokatzen ei jakun destinua. Jainko dontsu honek ez dosku emon eta momentu haundi horretan biharrezkua izaten dan, eta herriko semiek berezkua dauken abilezia, pikareska, eta "saber estar" hori.

Holako ostegun baten, Kusturican azken pelikulia ikusi ta gero etxerantza nindoiala mediatzino goxo eta ameslarixetan murgilduta, hantxe ikusi zinttudan zure portalan parian gominadun tipo batekin muturrak jaten. Banekixan putila xamarra zinala, baina hain baju jaustia be!! Bueno zuk nerekin ez zeukazun inongo konpromisuik, behinbe ez notzun eta klaru esan zuregattik sentitzen nebana. Baina ni agertzia eta muturrak gominadun atorrante horrengatik separatzia bat izan zian. Nahiz eta nik ezer esan ez, zuk bazekizun tilin eitten zoztazula eta beste batekin ikustian min hartu nebala. Oin be noizian behin pentsatzen dot zugan, aber zetan ibilko



Alaitz Sarasolak irabazi du lehenengo saria.

zan, ia gominadunakin jarraituko dozun, ia kilotxo batzuk irabazi dozuzen edota zure gerrialdeak lengo moduan "deluxe" izaten jarraitzen daben. Nahiz eta noizian behin zutaz akordau, euki dot paradia beste neska batzuz (nahiz eta gutxi izan) gerrialdiak oga-

tuz nere desio, bizio eta biharrrak asetzekua eta baita be beraien barrenak ezautuaz nere edukazino sentimentala aberastekua be.

Institutuan ezautu zinttudan, ta hasiera-hasieratik sentidu naban zurekin tratuan hasteko gogua. Baina, beti

mutilez inguratuta egoten zinanez, ba kosta eitten jatan zuregana hurbiltzia. Txikixa zinan, ilia morenua eta luzia zeukazun, begirakune sinietro xamarra, gorputz liraina eta gainera beste neskengaittik desberdintzen zotzun exotismua zeukazun gainezka. Makutuakin joaten zinan beti klasera eta asanbladetan hitzegittia be gustatzen jatzun. Askotan interbenitzen bazinuan be, beti gauza zentzudunak esateko izaten zan. Egurnero pentsatzen naban zurekin, beti zerbait esatekotan ibiltzen nintzan, baina... hurrengorako lagatzen naban. Gaur be igual jarraitzen dot, esfortzu minimo bat exigitzen daben gauzak ahal bada behintzat hurrenguan eitteko lagaz. Ta laga ta laga azkenian gauzak pilatu eitten jataz eta gero larritu eitten naiz. Baina gaur, afaldu ostian, holako tristezia eta nostalgixa sentzazino bat nere bihotzaz jabetzian, nagikerixak alde batera laga, eta memorixan (urteen ganbara ei dan horretan) azkenengo urtietan gordetako sentimentu, ilusino, ideia, sufri-mentu eta oroitzapenak karta honetan ahalik eta modurik ordenatuenian plasmatzen ahalegindu naiz.

Ba hoixe, oin ia badakizu. / Josu Arantzabalen gutuna. Bergarako irabazlea.

Tronpeta doinuak lagun bukatuko da bihar Organoaren Zikloa San Pedron

M.A.

Organo Erromantikoaren zikloak bihar du azken emanaldia. Miguel Etxepare tronpeta jolea eta Coro Saenz organo jolea arituko dira, 20:00etan hasita, San Pedro parrokian. Zazpi pieza joko dituzte.

Azpeitian, Azkoitian eta Bergaran egin den VI. Organo Erromantikoaren Zikloa bihar bukatuko da herrian. 20:00etan hasita, San Pedro elizak azken emanaldia jasoko du.

Miguel Etxepare tronpeta jolea eta Coro Saenz organo jolea arituko dira bihar. Biak hala biak maila handiko musikariak dira, sari garrantzitsuak jasotakoak. Bakarka eta elkarrekin, zazpi pieza eskainiko dituzte. Migel Etxeparek Baionako kontserbatorio-



Coro Saenz organo jolea.

an hasi zituen tronpeta ikasketak, eta sariak ere jaso zituen: goi mailako urrezko garaikurra, besteak beste. Ondoren, Versallesko kontserbatorioan jarraitzeko

aukera izan zuen. 1996az geroztik, Euskadiko Orkestra Sinfonikoan parte hartzen du; hura da tronpeta jole solista.

Coro Saenz donostiarrak, berriz, aitarekin hasi zuen ibilbidea. Aita, Jose Saenz akordeoi jolea, izan zuen maisu. Goiz bukatu zituen piano ikasketak, 16 urterekin. Baina beka bati esker Ameriketako Estatu Batuetara joateko aukera izan zuen, eta bertan pianoan sakondu zuen. Ondoren organo ikasketak egin zituen Tomas Garbizu maisuarekin, eta oso nota onekin bukatu zuen. Gaur egun irakaslea da, baina organo eta piano kontzertuak ere eskaintzen ditu. Andra Mari Abesbatzarekin eta Donostiako Orfeoiarekin parte hartu izan du, eta baita ospe handiko abeslariarekin ere; Ainhoa Artetarekin, besteak beste.

KULTURAPILULAK

Roberto Izagirrek lehenengo saria 'Pyrenaica' aldizkariaren mendiko ipuinen lehiaketan

Pyrenaica aldizkariaren mendiko ipuinen lehiaketa Roberto Izagirre bergararrak irabazi du, *Sokakidearen agurra* ipuinagatik. Euskarazko sailean izan da txapeldun. Bestalde, mendiko diapositiben sailean, Aitor Olabarria bergararrak jaso du bigarren saria.

Techno gaua bihar Jam aretoan eta heavy kontzertua hurrengo egubakoitzean

Bihar, zapatua, gauerdian, techno jaia izango da Jamen, ondoko DJekin: Sasse, Mr Negative, Edmund, Balza, Alain eta Kaiet. Egubakoitzean, hilaren 11n, Kreator, Ektomorf, Darq Tranquillity eta Hatesphere taldeen kontzertua izango da. Sarrerak, 20 eurotan.

Zure izeneko folk taldeak emanaldia egingo du gaur gauean Pol-Pol tabernan

Zure folk taldeak emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, Pol-Pol tabernan, 23:30ean. Orain dela urtebete sortu zuten taldea, euskal musika herrikoia plazaratzeko asmoz. Taldea esperientzia handiko bost musikari gaztek osatzen dute.

2005EKO URTARRILAREN 11KO ZOZKETA

1.000 euroko sari bat

eta **500** euroko lau sari



35.369 zenbakia
Alicia Etxaniz
Phildarrek emana



24.220 zenbakia
Marilo Garmendia
Onena tindategiak emana



13.847 zenbakia
Diego Soto
Etxeberria erlojutegiak emana



37.854 zenbakia
Tere Luengo
Gracian mertzeriak emana

7.263 zenbakia
Ez da irabazlerik agertu
Carmen Garatek emana



Zorionak!



Aro berria,
erakusketa berria.



jakina
BAINU GELAK · SUKALDEAK · KERAMIKAK

Amillaga 10
BERGARA
943 76 03 30

ELKARRIZKETA

PATXI AZKARATE/SAN JOXEPE ABESBATZAKO ZUZENDARIA

“Giro benetan ona dugu abesbatzan”

MARIA AGIRRE

Duela bost urte hartu zuen San Joxepe Abesbatzako zuzendaritza Patxi Azkarate antzuo-larrak. Bergarako erretiratuekin osatutako abesbatza da San Joxepe, eta Azkaratek oso gustura dihardu zuzendari.

Zer dela eta San Joxepe Abesbatzako zuzendari?

Duela bost urte proposatu zidaten zuzendari lanak egitea. Epe motzerako izango zela esan zidaten, beste norbait aurkitu arte, baina hemen jarraitzen dut, eta oso gustura, gainera.

Antzuolako abesbatzako zuzendaria ere bazara.

Bai. Antzuolakoan ere zuzendari lanak egiten ditut. Abesbatza biak, hala ere, oso desberdinak dira.

Zenbat lagunek osatzen dute San Joxepe Abesbatza?


40-50 lagunek osatzen dute, eta emakumezkoak gehiago dira. Erretiratuen abesbatza da, baina adin askotariko jendea dago. Bada 92 urteko gizon bat, eta baita 65 urte baino gutxiago dutenak ere. Oso ondo konpontzen dira guztiak. Kantuak ikasten ditugu, eta lagun giro jatorra dago; hori oso garrantzitsua da. Astean behin entsegua izaten da, baina bukatutakoan lagun taldeak eratu eta kafea hartzen edo hizketan geratzen dira.

Zein kantu ikasten dituzue?

Batez ere herrikoiak, bai euskaraz zein gaztelaniaz. Lau edo bost ahotsetara aritzen gara. Gainera, maila askotariko jendea dago abesbatzan. Batzuk Donostiako Orfeoian ibilitakoak dira, eta beste batzuek ez dute horrelako mailarik. Hala ere, taldean sartzeko ez da inolako *casting*-ik egin behar.

Erretiratuentzat ona izango da kantuan aritzea, memoria lantzeko-eta.

Kantuak buruz ikasten ditugu, eta hori ona da memoria lantzeko. Gainera, abesbatza ere helburu horrekin jaio zen: terapia eta entretenimendu modura.



MARIA AGIRRE

“San Joxepe Abesbatzako kide edonor izan daiteke; kantu herrikoiak ikasten ditugu”

Zer moduz moldatzen zara erretiratuekin?

Oso ondo. Pozik daude nirekin, ez baita erraza horrenbeste jenderekin osatutako taldean hain giro ona egotea. Gustura daude, eta horren seinale da joan den azaroan egin zidaten omenaldia. Santa Zezilia egunez bazkaria egin genuen, eta bukaeran, zer eta opariak eman zizkidaten! Euskal makila eta margolan bat eman zizkidaten, eta erabat hunkitu nintzen. Nik ez nuen horrelakorik espero.

“Astean behin izaten dugu entsegua, baina bukatutakoan kafea hartzen geratzen dira”

Zein emanaldi eskainiko duzue datozen hilabeteotan?

Zumarragara joateko deitu digute, eta apirilean joango gara emanaldia eskaintzera. Duela gutxi, berriz, Gipuzkoako erretiratuen hainbat abesbatza elkar-tu ginen Donostian. Hara eta hona ibiltzen gara, eta hori ere gustuko dute erretiratuek.

Patxi, abesbatzako zuzendari jarraituko duzu, ezta?

Bai, ez dut uzteko asmorik, pena handia emango lidake. Jarraitu egingo dut.

LABUR

Sagardotegira irteera antolatu dutela eta, orain egin behar da izenematea San Joxepen

Hil honetan, Hernani inguruko sagardotegi batera joateko asmoa dago, eta irteera hori noiz egingo den zehaztu barik badago ere, izenematea orain egin behar da San Joxepeko idazkaritzan. Egun osoko irteera izango da, eta bazkaria sagardotegian egingo dute. Zein egunetan izango den aurrerago jakinaraziko dute.

Otsailaren 10ean eta 24an bingo saioa egingo dute erretiratuek, hilero moduan

San Joxepe elkartearen izango dira bingo saioak. Hilero pare bat saio egiten dira, eta hil honi dagozkionak 10ean eta 24an egingo dira. Interesatuak, 19:30erako joan beharko dute San Joxepera, eta txartelak eskuratu. Kartoi bi euro baten truke eskura daitezke, eta lau saio egiten dira kartoi birekin. San Joxepekoek esan digutenez, 60 lagun inguru hurbiltzen dira bingo saioetara.

San Joxepe Abesbatzako kideak abestera atera dira gaur, Santa Ageda bezpera

Herriko kaleak alaitzen ibili dira gaur San Joxepe Abesbatzako kideak. Santa Ageda bezpera izanik, kantuan atera dira taldeko kideak gaur goizean. Arratsaldera arte aritu dira kantuan.

Aurrera begira, berriz, Zumarragan eskainiko dute emanaldia abesbatza horretakoek. Apirilean joango dira Zumarragara, eta ondoren Errenteriara.



Aratuste-martitzenean bazkaria izango da

Datorren martitzenean, Aratuste giroa nagusi izango da San Joxepe elkartearen. Izan ere bazkaria antolatu dute, eta bazkariak harrera ona izan du, 110 erretiratuek egin baitute izenematea. Arratsaldeko 14:00etan hasiko da bazkaria. Bat edo beste agertuko da mozorrotuta, baina antolatzaileek kartoizko txapelak eta banatuko dituzte, mozorrotuta ez doazenendako. Era horretan, Aratuste giroa sortu nahi dute. Bazkariaren ostean, gainera, dantzaldia izango da. Dagoeneko izenematea epea bukatuta dago.



GAZTELU
BURDINKI DENDA

Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

Mujika
gozotegia



Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 **BERGARA**
943 76 10 34


ARDATZA
Brikolajea

Ateak eta zokaloak
Horma-armairuak
Sarrailak
Heldulekuak

Koadroak markoan ipini
Era guztietako moldurak
Apalak
Kaxoiak

Masterreka 4-behea. Bergara. 943 76 18 93

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Ze elkarteko teilatutik atera dugu argazkia eta zein da bertan ageri den mendixkaren izena?

BERGARAROSPETSUAK

Xabier Maria
Munibe (3)


KOLDO PEREIRA

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko lehen bazkideetako batzuk bergararrak ziren. *Historia compendiada* liburuan (1880) Nikolas Soraluzek honakoak aipatzen ditu: Bizente Lili diruzaina, Migel Joseph Olaso idazkaria, Roke Xabier Moia —Rocaverdeko markesa—, Migel Ignazio Olaso, Ignazio Maria Ozaeta eta Joseph Joakin Landazuri. Talde handi samarra osatzen zuten bergararrek, lehen estatutuen arabera guztira 24 bazkide ziren-eta.

Estatutueta 9. artikuluan zehazten zenez, "herriarentzat onena zer den hartu behar da beti kontuan, eta baliagarria denari lehentasuna eman atsegina denaren aurretik".

Elkartekak bilakaera handia izan zuen, zalantzarik gabe, eta 1776ko azaroaren 4an goi-mailako eskola ireki zuten. Hasieran Eskola Patriotikoa zuen izena, baina gero Euskal Herriko Errege Mintegi Patriotikoa izena eman zion Karlos III.a erregeak. Mintegian, liburutegia, laborategia eta hainbat bulego zeuden, eta etengabe hobetu zuten eta gero eta ikasketa-plan zabalago eta egokiagoak egin zituzten.

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko lehen bazkideetako batzuk bergararrak ziren



Seminarioko irudia

GALDEDEBALDE

- | | | |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>1.
Zenbat etorkin ari dira lanean Caritasek sortutako kooperatiban?</p> <p>A/ 600.
B/ 175.
C/ 250.</p> | <p>2.
Zein taldetan ari da entrenatzaile lanetan Asier Garitano bergararra?</p> <p>A/ Hercules.
B/ Alacant.
C/ Cadiz.</p> | <p>3.
Amodiozko Gutunen Lehiaketan, nor izan da herriko onena?</p> <p>A/ Josu Arantzabal.
B/ Nahikari Gabilondo.
C/ Aloña Larrañaga.</p> |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|



AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

JOSE MARI AKIZUrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Jose Mari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Leihoa: Xabier Maria Munibe plaza. Armarria: Masterreka.** / Galde debalde: 1-C, 2-A, 3-B.

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Berberena ardoa

Urteko ardo beltza. 75 cl-ko botila

1,39 €

231 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

PINTXOAK eta OGITARTEKOAK SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g Bergara
943 76 07 92

OILAGORRA
TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA

margolan
m a r g o a k

- ▶ margo orokorra
- ▶ margo dekoratiboa
- ▶ umeentzako dekorazioak
- ▶ feng shui estudioak
- ▶ bidrierak

Sagasta auzoa Z^a 5-3D
20577 ANTZUOLA-HERNANI
Tel.: 943 76 62 13 / 665 733 955
687 570 777

ERRETRATUZAHARRA

ELGETA

Karta txapelketako finala Ozkarbin

Ozkarbi Elkartean ateratakoa da erretratua. Duela 30 urte inguru karta txapelketako finala jokatu zen bertan. Izan ere, garai hartan mus txapelketa egiten zuten herriko taberna guztietan, eta elgetarrek ez ezik kanpokoek ere jarduten zuten.

Orduko txapelketa hartan Patxi Basaurik eta Manu Sarasuak osatutako bikotea izan zen irabazle; argazkian behintzat txapelarekin eta garaikurra-ekin azaltzen dira. Elkarrekin ondo moldatzen ei ziren karta jokoan, eta batera jarduten zuten gehienetan.

Behin txapelketa amaituta, irabazleek, aurkariak eta hainbat lagunak ospatzeko topa egin eta argazkia atera zuten. Hala, urte batzuk geroago, txapelketako irabazle izan zirela erakutsi ahal izan dute.

Gaur egun txapelketarik egiten ez bada ere, Ozkarbi elkartean askok jarduten dute karta jokoan. Batez ere aste-buruetan, gizonetzko eta emakume ibiltzen dira musean, briskan, puntuan eta bestelako jokoetan.

Hona hemen erretratuan agertzen direnen izen-abizenak, ezkerretik hasita: Emilio Mandaluniz, Manu Sarasua, Juan Mari Sarasua, Patxi Basauri, Leandro Maiztegi, Jesus Mari Berraondo, Faustino Aretxaga, Jose Inazio Erostarbe eta Juan Mari Arantzeta.

Argazkia: Mariasun Agirre



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zator BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

GOIERRI AUTO GIDARIEN ESKOLA




Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

MUJIKA FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko otsailaren 4a / 221. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Herriko kirol elkarten artean 9.000 euro banatu zituen iaz Udalak

IRATI AGIRREAZALDEGI

Udalak urtero banatzen ditu dirulaguntzak herriko kirol taldeen eta elkarten artean. Iaz guztira 9.016 euro eman zituen. Bestalde, kirolariak osasun azterketak egiteko kanpaina abian ipini zuen Udalak, eta 1.725 euro eman ditu egitasmo horretarako.


Udalak urtero dirulaguntzak ematen dizkie herriko kirol taldeei. Azken osoko bilkuran onartu zuten 9.016 euro banatzea.

Antzuola Kirol Elkarteak 4.207 euro jaso zituen; Olalde Pilota Elkarteak 2.079 euro; Arrola Mendizaleen Elkarteak 1.194 euro; eta Ariznoa Gimnasia Taldeak 330 euro; eta 160 euro Lokatza Txirrindulari Elkarteak.

Honetaz gain, Udalak beste 850 euro eman zizkion Antzuola Kirol Elkarteari Gabonetako futbito torneo antolatzeko; eta 196 euro Aiausti Txirrindulari Elkarteari *challenge*-rako.

OSASUN AZTERKETAK

Bestalde, iaz hasi zuen Udalak kirolariak, osasun azterketak egiteko, dirulaguntza kanpaina.



AITOR LIZARRALDE

Besteak beste, txirrindulari lasterketak antolatzeko ematen ditu dirulaguntzak Udalak.

Guztira, 69 lagunek eskatu zuten laguntza eta 1.725 euro banatu zituen Udalak hauen artean.

Kanpaina honen helburua kirolean diharduten lagunek behar bezalako mediku azterke-

tak egitea da. Kanpainak interesaz piztu du herritarren artean eta hauek emandako erantzuna poztekoa izan da.

Hori dela eta Udal Kirol Zerbitzutik jakinarazi digutenez, aur-

ten ere eutsi nahi diote kirolariak lotutako osasun azterketak bultzatzeko kanpainari. Baina Udal aurrekontuak onartu artean ez dakite kanpaina egingo den ala ez.

JAIK

Aratusteak, San Blas eta Santa Ageda jaiak direla eta, ospakizunak izango dira asteburuan

IRATI AGIRREAZALDEGI

Aratusteak ospatuko dituzte asteburuan antzuolarrek.

Zapatuan umeen txanda izango da. 16:00etan pilotalekuan txokolata eta torrada jana egingo dute, eta 17:00etan Poxpolo, Mokololo eta Konpainia pailazoan emandakia izango da. Umeak mozorrotuta joango dira bertara. Gaztetxeak, berriz, afaria antolatu dute. 21:30ean izango da.

Bestalde, domekan, herriko dantzariak hartuko dute lekukoa. Oinarin Dantza Taldekoek

kalejira egingo dute herrian Aratusteetako pertsonaiak lagun dituztela: *hartza*, *tximinoa* eta *piztia hezlea*, hain zuzen. Ondoren, dantza saioa eskainiko dute plazan, 12:30ean.

SAN BLAS ETA SANTA AGEDA

Aratusteak ez ezik San Blas eta Santa Ageda ere izan dira asteon.

Gaur kintoak ibili dira egun osoan kantuan. Iluntzean, berriz, abesbatzakoak aterako dira Santa Agedaren omenez eskean. Jasotako dirua Hirugarren Munduko herrialderen batera bidaliko dute

Anelkar elkartasun taldearen bidez.

Bestalde, Galartza auzoan domekan ospatuko dute Santa Ageda eguna. 12:00etan meza izango da ermitan eta ondoren salda eta txorizoa banatuko dituzte. Jaia trikitilariak alaituko dute.

Santa Ageda eguna ez ezik San Blas eguna ere pasa da asteon. Izen bereko auzoan zapatuan egingo dituzte ospakizunak. 12:00etan meza egongo da San Blas ermitan, eta bertan opilak bedeinkatuko dituzte. Ondoren, salda eta txorizoa banatuko dira.



AITOR LIZARRALDE

Oinarinekoek dantza saioa egingo dute.

LABUR

KZgunean bi ikastaro izango dira otsailean

Otsailaren 10ean eta 24an (eguna) KZgunea 16:00etatik 20:00etara bitartean izango da zabalik. Bertan nabigatzeaz gain, honako ikastaroak egingo dira: *Asteburu bat Euskal Herrian* eta *KZguneko Foroak eta FAQ*. Ikastaro bakoitza bi ordukoa izango da.

Sahara bidaltzeko 27 kutxa bete ditu Anelkarrek

Sahararen Aldeko Kanpainan amaituta Anelkarrek bakoitza bete dute jaso behar diren kutxen artean. Iaz baina gutxiago izan da kopurua baina emaitzekin gustura daude. Guztira, 656 atun lata; 270 kg azukre; eta 272 konpresa pakete batu dituzte. Hau da, 27 kutxa betetzeko adina.

Familia heziketari buruzko hitzaldia Herri Eskolan

Bizikidetzaren oinarriak gatazka nola bideratu izenburupean hitzaldia egongo da otsailaren 10ean Herri Eskolako aretoan 18:00etan. Juan Carlos Alonso psikologoa egingo du berba eta besteak beste gatazka baten aurrean hartu beharreko jarraitzaile izango ditu hizpide.

Sinadura bilketa herri txiroekiko elkartasuna eskatzen

Herri txiroekiko elkartasun konpromisoa eskatu nahi du Eusko Jaurlaritzari plataformaren bidez. Asteon proposatzen duen Antzuolan azaldu ostean; horren aldeko sinadura bilketa egingo dute asteburuan. Otsailaren 5ean, San Blas egongo dira, eta 6an, plazan. Helburua da EAEn 30.000 sinadura batzea.

ELKARRIZKETA

JUANITA IÑARRA/DENDARIA

“Dendan harreman polita izan dut herritarrekin”

I.A.

Juanita Iñarrak dendari lanetan jardun du 25 urtean. Erretiroa hartzeko adina pasa bazitzaion ere, Kalebarrengo dendan gustura egonik bertan jarraitu du hainbat urtean. Asteon, ordea, denda utzi du, eta badu lekukoa hartuko dionik ere.

Horrenbeste urteren ostean denda utzi duzu. Penaz zaude?

Maiatzean beteko dira 25 urte dendan hasi nintzela. Erretiroa hartzeko adina aspaldi pasa zitzaidan, baina denda etxetik gertu dagoenez eta jendearekin harreman polita dudanez, jarraitu egin dut. Orain, ordea, zahartu egin naiz eta lagatzeko erabakia hartu dut. Pena handiz utzi dut, eta negar ere egingo dut, baina ez bezeroen aurrean.

Nola hartu zenuen denda?

Dendari lanetan nenbilen Antzuolan Rafael Zelaia oñatiarrarekin. Hark denda itxi zuenean, denda hau ere itxita zegoen. Kalebarrean denda zeukan Jesusa Azkarate ere erretiroa

hartzekoa zen. Beraz, ahizpak animatu eta denda ireki nuen.

Zer saltzen da zure dendan?

Batetik, janariak. Bestetik, berriz, drogeriako gauzak. Lehen, platerak, edalontziak, kazuelak... ere saltzen nituen, baina fabrika itxi zuten eta nik ere laga egin nion horrelakoak saltzeari.

Beti bakarrik egin duzu lan?

Ahizpa izan dut lagun. Jende asko zebileanean edo eskari handi bat iristekoa zenean dei egiten nion, eta hark lagundu izan dit.

Herriko jende askok ezagutzen zaitu eta zuk ere herritar asko ezagutuko duzu. Juanita Antzuolan instituzioa dela esan daiteke?

Horrenbesterako ez dakit, baina jendeak ezagutzen nauela ezin

dut ukatu, eta eurekin konfiantzako tratua dut, gainera. Batzuek dirurik gabe etorri arren, erosketak egin eta hurrengo batean ordaindu izan didate inolako arazorik gabe.

Denda utziko duzu, baina izango da zure lekukoa hartuko duenik?

Bi neska gazte hasiko dira dendan lanean: Goretti eta Amaia. Herrian ezagunak dira eta berehala hartuko dute dendako martxa. Gainera, bezeroak niregana etortzen ziren bezala haiengana ere etortzen segituko dutela uste dut. Gomendioak eman dizkiet neska bioi, eta zorterik handiena opa diet.

Denda txikiei nolako etorkizuna ikusten diezu?

Pixkanaka behera egin dute. Izan ere, orain toki askotan aurki daitezke nik saltzen ditudanak. Hala ere, nik jardun dudan urteetan ondo moldatu naiz. Garai batean horrelako bost edo sei denda zeuden eta orain, Eroski eta nirea. Dena den, kanpotik jende asko etorri da bizi izatera, eta bali-teke berriz ere gora egitea dendan mugimenduak.



IRATI AGIRREAZALDEGI

“Denda txikiek behera egin dute, baina ni ibili naizen denboran ondo moldatu naiz”



Haurreskola abian da

Astelehenean ipini zuten abian Haurreskola. 0 eta 2 urte bitarteko bost ume daude oraingoz Vanessa eta Nerea irakasleen ardurapean. Instalazioei dagokienez, beste haurreskolendako erreferentzia izan nahi du Antzuolakoak. Udalak lan handia egin du umeei egokitutako eskola gertatzen. Bestalde, Goizper enpresak dirulaguntza eman du obrak egiteko; 30.000 euro, hain zuzen. Umeak asteen egokitzapen prozesuan ibili dira, eta pixkanaka hartuko dute haurreskolako martxa. /I.A.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Otsailak 5

12:00: Antzuola-Urki (Neskek)

PILOTA

Otsailak 5

17:00: Olalde-Ikasberri (Nagusiak)

Ondoren: Olalde-Kuku (Pala motza)

EMAITZAK

FUTBOLA

Lasarte 0 Antzuola 2 (2. erregionala)

PILOTA

Olalde 22 Mundarru 3 (Kadeteak)

Eibar 10 Olalde 22 (Nagusiak)

Olalde 15 Landare 40 (Pala motza)

GAILUR
taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

ANTZUOLA
Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaza

**Zoruen kutxilatua
eta
bernizatzea**

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Tomas Gezalaza

**Apainketarako eta
industriarako pinturak
Paper margotuak
Moketak eta tapizatuak**

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005eko otsailaren 4a / 214. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Dantza, kontzertua eta antzerkia Aratusteetan

IRATI AGIRREAZALDEGI

Aratusteetarako hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Gaur iluntzean kaleko giroa alaitzeko Oñatiko Oñatz dantza taldeak Luzaideko dantzak egingo ditu, eta gauean kontzertua izango da gaztetxean. Bihar, berriz, antzerkia izango da Espaloian.

Aratusteetan murgilduta daude elgetarrak. Eskolako umeak arratsaldean mozorrotuta irten dira kalera, eta dantza ere egin dute.

Txikienei nagusiagoek hartuko diete iluntzean lekua. 20:00etan Oñatiko Oñatz dantza taldekoek kalejira egingo dute herriko kaleetan, eta ondoren, dantza erakustaldia izango da plazan. Euria eginez gero, berriz, Espaloian.

Luzaideko Inauterietako dantzak egingo dituzte oñatierrek. Oñatin Aratuste-domekan dantzatuko dituzte dantzok eta Elgetan kaleko giroa alaitzeko mutxi-koak eta polkak egingo dituzte.

KONTZERTUA GAZTETXEAN

Bestalde, gaur, barikua, 22:30ean hasita Zaldibarko bi taldek kontzertua eskainiko dute gaztetxean: Noise X eta Sibaris taldeek,



Umeak arratsaldean mozorrotu dira, eta iluntzean Oñatzekoek egingo dute dantza.

hain zuzen ere. Beste urte batzuetan mozorro lehiaketa egin badute ere, aurtengorako ez dute horrelakorik antolatu. Hala ere, herritarrei barikuan mozorrotuta joateko gonbita egin diete gaztetxe-koek.

Dantza eta kontzertuaz gain, antzerki saioa ere antolatu dute Aratusteen aitzakian. Zapatuan izango da, Espaloian, umeendako antzezlanak. Markeliñe taldeak *Piratek igandeetan jai* lana antzeztuko du 17:00etan.

JAIK

San Blas eguneko elizkizuna Arantzetan

I.A.

San Blas Eguna izan zen otsailaren 3an, eta, azken urteotako ohiturari jarraituz, ospakizuna egingo dute Arantzeta auzoan oraingo domekan.

Lau baserri daude Arantzetan, eta hamar bizilagun baino gutxiago ditu auzoak. Hala ere, San Blas eguneko ospakizunetara herritar ugari gerturatzen da, 100 lagun gutxi gorabehera.

Arantzetako ermita orain dela urte batzuk berritu zuten auzolanean. Orduan, ia jaustear zegoen, eta itoginak ere bazituen.

MEZA ETA HAMAIKETAKOA

Garai batean, urtean bi elizkizun izaten ziren ermita horretan. Baina, gaur egun, San Blas egunaren bueltakoaz gain, ez da besterik egiten.

Oraingo domekan 13:00etan izango da meza, eta San Blas egunean opilak eta bestelako jakiak bedeinkatzerik izan ez zutenek bertan edukiko dute horretarako aukera.

Mezaren aurretik eta ostean, inguratzen direnei salda eta txorizoa banatuko diete, eta hamai-ketakoa girotzen trikitilariak jardungo dute.



San Blas ermita orain dela urte batzuk berritu zuten.

ERREFERENDUMA

Hauteskunde mahaia osatuta Europako Itunaren bozketarako

I.A.

Atzo, otsailak 3, hasi zen ofizialki Europako Itunaren gaineko hauteskunde kanpaina. Otsailaren 20an izango da bozketak eta Elgetan jadanik erabakita dago hauteskunde mahaia zein herritarrek osatuko duten. Erroldaren arabera 861 elgetarrek izango dute itunaren aldeko edo aurkako botoa emateko aukera.

Otsailaren 20an egingo da Europako Konstituzioaren erreferenduma. Egun horretan hauteskunde mahaian zein herritar egongo diren erabakitzeke zozketa egiten ibarreko lehena izan da Elgetako Udala.

Udalbatzak urtarrilaren 27an zozketa bidez erabaki zuen hauteskunde mahaia honako hauek osatuko dutela: Josu De Vega Corrales mahaiburua; Jose Ramon Estevez Lorenzo lehe-

nengo mahaikidea; eta Jone Muxika Sarasketa, bigarrena.


ORDEZKOAK

Mahaiburuaren ordezkokoak Jesus Mari Berraondo Arantzeta eta Maria Luisa Abanto Gonzalvo dira; lehenengo mahaikidearenak M. Milagros Ule Zulueta eta Henrike Gorrotxategi Ubera; eta hirugarren mahaikidearen ordezkokoak Aragoitz Arantzabal Garai eta M. Carmen Agirre Bergaretxe.

LABUR

Patxi Basauri, alkatea, GOITBko 'Debarri' saioan izango da otsailaren 8an

Otsailaren 8an GOITBko *Debarri* saioan izango da Patxi Basauri, alkatea. Alberto Gorritibereak zuzentzen duen saioan herriko berri emateaz gain, elgetarren iritziak jasoko dituzte. Bestalde, alkateari Elgetaren gaineko hainbat galdera egingo dizkiote. Herritarrek eurek ere izango dute aukera alkateari galdetzeko. Horretarako, *goiena.net* webgunean Elgetako eztabaida atalera jo dezakete eta bertan idatzi edo egunean bertan telefonoz deitu (943 71 23 93).



Patxi Basauri, alkatea.

Korrikaren gaineko argazkiak behar dira erakusketa egiteko

I.A.

Korrika 14 badatorrela eta, batzorde bat eratu eta lanean dihardute, bi urtean behin egiten den lasterketa horren inguruan ekitaldiak antolatzen dira.

Martxoaren 16an pasatuko da aurten Korrika Elgetatik, eta egun horretan izango da ekin-tzarik. Batetik, Korrika Txikia egingo dute umeei; eta horren ostean Pirritx eta Porrotx paila-zen emanaldia izango da.

Korrika pasa ostean, berriz, afaria egingo dute eta afalondoan kanturako aukera izango da. Berri-kan bikotearekin. Oskar Estangak eta Jaione Olazabalek euskal kantu ezagunak abestuko dituzte.



Korrika martxoaren 14an pasatuko da Elgetatik; aurretik Korrika Txikia egingo da.

ERAKUSKETA

Bestalde, Korrika batzordeko kideek argazki erakusketa egin nahi dute. Horretarako, herrita-

rrei eskatu nahi diete kultura etxera eramateko Korrikaren gainean aterata dituzten erre-tratuak.

Bide batez, gogorazi nahi dute laguntzaile egiteko aukera dagoela Haizea tabernan, Espaloian, Herri Eskolan eta gaztetxean.



San Blas opilak egin zituzten eskolan eguaztenean

Otsailaren 3an San Blas Eguna zela eta, bezperan sukaldari lanetan jardun zuten Herri Eskolako umeei. Egun horretarako propio gertatu ohi diren San Blas opilak egin zituzten, irakasleen laguntzarekin. Goizean, opilendako oreka egin eta forma eman ostean, nork bere opila etxera eraman zuten labean egiteko. Izan zen opila bezperan jango zuela esan zigunik; beste batzuek, ordea, elizan bedeinkatu arte itxoin zuten opila jateko./I.A.

LABUR

Saharara bidaltzeko produktuen bilketa kanpaina hamar kaxa bete dituzte Elgetan

Urtarrilaren hasieran jaso zituzten, herriko hainbat dendatan eta udaletxean, Saharako errefuxiatuen kanpamenduetara bidaltzeko produktuak. Piztu itxaropena izan burupean ipini zuten abian kanpaina, eta, guztira, hamar kaxa betetzeko adina gauza batu dituzte. Aurten honako produktuak jasotzeko dei egin zuten: atun latak, azukrea eta konpresak. Elgetan 26 kilo atun, 66 kilo azukre eta 53 konpresa pakete jaso dira. Bildutako guztia Bergarara eraman dute, eta bertan antolatuko dute Saharara iristeko modua.

KZgunean nabigatzeaz gain, ikastaro bat egiteko aukera izango da otsailean

Otsailean, KZgunea arratsaldean nabigatzeko erabiltzeaz gain, ikastaro bat egiteko aukera ere izango dute elgetarrek. Irakaslea otsailaren 2an izan zen bertan, eta orduan, *Zure egunkaria irakurri* ikastaroa eman zuen. Hilaren 16an berriz egongo da 16:00etatik 20:00etara. Egun horretan honako ikastaroa emango du: *Postal bat bidal ezazu*. Ikastaroa 16:30etik 17:30era izango da kultura etxean dagoen KZgunean. KZguneako erabiltzaileek bertara joan eta har dezakete parte ikastaroan.

Bolo txapelketa bertan behera geratu zen, eta martxoan beste tiraldi bat izango da

Neguko Bolo Txapelketako sariak banatu zituzten joan den hilaren 18an. Felix Gomez izan zen lehenengo, Felix Aizpuri bigarren eta Jose Luis Gorosabel hirugarren. Emakumeetan, berriz, partaide bakarra izan zen: Karmen. Neguko Txapelketa amaituta, joan zen zapaturako beste bolo txapelketa bat antolatu zuten Elgetan. Baina eguraldi txarrak eraginda, ez zen parte-hartzaile askorik inguratu kiroldegiko bolatokira; beraz, bertan behera geratu zen. Martxoan beste tiraldi bat egingo dute.

Gure Borda elkarteko bazkideek urteko batzarra eta bazkaria egingo dute domekan

Asentzioko Gure Borda elkarteko bazkideek batzarra egingo dute domekan, 12:00etan, elkartean bertan. Urtero Aratuste-domekan elkartzen dira elkartean, urtean zehar izandako gorabeheren gainean hitz egiteko. Batzarra egin ostean herrira jaitsi eta 14:00etan denek batera bazkalduko dute Ozkarbi elkartean. Gure Borda elkarteak 25 bazkide ditu eta egun Jose Inazio Erostarbe da presidentea. Elkarteko kideek urtean bi aldiz elkartzeko ohitura dute. Urteko lehenengo hitzordua Aratuste-domekakoa da eta ondoren, Pilarika Egunean berriz batuko dira.

Zapatuan izango da Debagoieneko Kirol Txapelketa Zirkuituaren azken jaia

Joan zen zapatuan ziren egitekoak Debagoieneko Kirol Txapelketa Zirkuituaren azken jaia. Baina eguraldi txarra zela eta atzeratzeko erabakia hartu zuten, eta zapatu honetan, otsailaren 5ean, egingo dute. Debagoieneko Kirol Zerbitzuek antolatu dute jaia. Jaian Udal kirol teknikariak izango dira eta Kirol Txapelketako masterretan parte hartu duten kirolariak ere gonbidatuta daude. 10:00etan kirol jolasak egingo dituzte; 12:30ean squash, tenis eta frontenis txapelketetan irabazle izan direnei sariak banatuko zaizkie eta ondoren, 2005eko Kirol Txapelketa Zirkuitua aurkeztuko dute. Jaia amaitzeko 13:00etan luntxa izango da.

OSMA
PIEZEN AUKERATZEA ETA EGIAZTATZEA

Salbador kalea 19 behea • 20690 ELGETA
Tel.: 943 768 127
Mobila: 677 032 739

**JAR EZAZU
HEMEN
ZURE
PUBLIZITATEA**

Goibekokale

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea
- Reflexologia
- Hidromasajea
- Kirol masajea
- Podologia



- Solariuma
- Drenaje linfatikoa
- Algekin eginiko estalkia
- Depilazioa laser bidez

Dei ezazu **646 50 00 29** telefonora ordua eskatzeko

ALBAITARIAK

ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman) Zurradero 6, behe. 943 76 70 67 / 607 48 71 19

ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albaitari ofiziala) 609 54 16 13

IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak) Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA Isabel Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN Victor Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23

ARAMBURU HORTZ KLINIKA Telesforo Aranzadi 1. 943 76 02 46

ASTIAZARAN SOLOZABAL Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95

BERGARA HORTZ KLINIKA Bidekurutzeta 36, behe. 943 76 05 77

GOROSABEL J. Alberto Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88

CAVIGLIA Silvana S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54

IRIARTE Idoia Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65

SAINZ Ana Herriko plaza 4, ANTZUOLA. 943 78 71 69

TRIPALDI Enrike Justo Garate 1. 943 76 70 76

DIETISTAK

ALBERDI Mireia Olanan etxea, Herriko plaza 3, ANTZUOLA

Ibargarai 44, BERGARA. 943 76 60 45 / 646 43 34 58

ERREHABILITAZIO FISIKOA

LOPEZ DE MUNAIN Francisco J. Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

FISIOTERAPEUTAK

ARZAK Miren (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

BASTERRETXEIA Maria Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

UNZUETA Irene San Martin Osasundegia. Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

HOMEOPATA

GANUZA Susana San Martin Osasundegia. Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

MASAILARIAK

AZPEITIA Irune Ibargarai 44, behe. 943 76 73 43

CASANELLAS Jabier Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78

ETXEBERRIA Ana Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

BENITO Isabel Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62

MEDIKUNTZA OROKORRA

OXIRONDO KONTSULTATEGIA Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50

OTORRINOLARINGOLOGOA

IGARTUA ALMANDOZ Julian Barrenkale 35-1 ezkerre. 943 76 70 91 630 653 202

PODOLOGOAK

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA Ikerleku Zeharbidea z/g. 943 76 07 84

AZPIAZU Arantzazu Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

PSIKIATRA

GALLASTEGI Pablo San Martin Plaza 2, 1-ekz. 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80

URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13

ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

YOGA

SAMADHI YOGA Masterreka 13, behe. 943 76 11 38 / 639 235 753.

BERGARAKO
OSASUN GIDA
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.